

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Urriak 3 – Azaroak 3 (plataforma zabalik) Aurrez aurreko saioak: urriak 7 eta 28	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	Aurrez aurreko saioak: IVAPeko 30. gela Lakua / Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	15 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	Aurrez aurreko saioak: 09:00etatik 12:00etara
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Irailaren 16ra arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Irailaren 19tik 23ra
<b>BAJA EMATEKO EGUNAK</b>	Urriaren 3a eta 4a	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 1HE gaindituta izatea.
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15	<b>MATERIALA</b>	Ikastaroan banatuko da
<b>IRAKASLEA</b>	Julen Cabezas (IVAPeko teknikaria)	<b>AZPIEGITURA</b>	Ordenagailua eta arbela
<b>DISEINUA</b>	Julen Cabezas		

### ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	2.HEko gutuna eta iritzia emateko testuak sortzen trebatzea Testu-mota horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea
<b>HELBURU ZEHATZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gutuna eta artikulua sortzeko eta baloratzeko prozesua lantzea.</li> <li>- Ikasleak testua sortzeko prozesu osoa ezagutzea: ideiak antolatzetik testua ebaluatzeraino.</li> <li>- Prozesuan sortuko diren zalantzeei erantzun praktikoa ematea.</li> <li>- Ebaluatzeko erabiltzen diren kontzeptuak ezagutzea (koherentzia, kohesioa, ...) eta sortuko duten testura zelan eraman lantzea.</li> </ul>
<b>GAITASUNAK</b>	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da bere lan-esparruko eta hainbat gai ezagunei buruzko testuak sortzen dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

### METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehenasuna.
- Aurrez aurreko bi saioetan ikastaroaren aurkezpena eta ildo nagusiak landuko ditugu, eta ikastaroan sortu ahal diren zalantzei erantzuna emango diegu . Talde txiketan lan egingo dugu.
- On-lineko unitate bakoitzean ebaluazio-irizpideak landuko ditugu eta irakasleak proposatutako ariketak egin beharko dira.
- Azken fasean testu osoa ebaluatzeko tresnak landuko dira eta nork bere testuen ebaluazioa eginda, irakaslearena jasoko dute.

### 1. unitatea (aurrez aurreko saioa Lakuan)

- Aurkezpena: 2.HE, zer da?  
Zein hizkuntza eredu erabili behar da?  
Azterketa eredia
- Gutuna eta artikulua: Eredu bat aztertu: edukia/forma  
Oinarriko kontzeptuak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.  
Nola sortu gutun bat: zer esan?, nola esan?  
Nola sortu iritzi-testu bat?, nola esan?
- Lan taldeak sortu.
- Azterketetan egiten diren akats ohikoenak.

### 2. unitatea: ZER ESAN

Eskatutakoaren garrantzia: nork, nori, zer, nola...  
Iritzia nola formulatu  
Informazioa lortu / Ideiak bildu  
Egokitasuna

### 3. unitatea: IDEIAK ANTOLATU

Koherentzia  
Kohesioa  
Konexioa

### 4. unitatea: ESKEMA

Paragrafoa  
Lexikoa  
Aberastasuna

### 5. unitatea (aurrez aurreko saioa Lakuan)

- Lan-taldeak osatu
- Proposatutako testuak sortu eta baloratu.
- Sortutako zalantzei erantzun.

### 6. saioa: TESTUA SORTU

Zuzentasuna  
Testuaren balorazioa

**7. saioa:** Aurreko moduluetan atalka landutakoa oinarri hartu eta gai batzuk emanda, gutun eta iritzi-testu osoak idatzi. Irakaslearen balorazioa jaso.

### EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

**IKASTAROAREN  
BALORAZIOA**

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

Bete beharreko baldintzak:

Aurrez aurreko saioak: % 80ko bertaratzea.

Lineako saioak:

**ZIURTAGIRIA:  
APROBETXAMENDUA**

- Zereginen % 80 egitea eta irakasleak ontzat ematea.
- Azken saioko zeregina egitea ezinbestekoa izango da.

**128 €**

**PREZIOA**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.

EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk